

Eta Tolosaldean zer

Erosketak egiteko ditugun ohiturak aztertuta, argi dago hainbat aldaketa egin behar ditugula. Tolosaldean dauzkagun aukerak aprobetxatu behar ditugu: urtean zehar ditugun azoka bereziak, kontsumo taldeak eta inguruan ditugun baserrietako salmenta zuzenak. Produktu ekologikoen aukera ere gero eta zabalagoa da gure saltokietan, eta elikatzeke ohitura osasuntsuak berreskuratzen baditugu, ingurumenari lagunduko diogu eta baserri munduari azken urteotan hain beharrezkoa duen bultzada emango diogu. Gogoratu, era berean, Tolosan larunbatero azoka dagoela.



Inguruko baserriarren produktuak herrian erosteko aukerak aprobetxatu behar ditugu.



Abeltzaintza, Piparraren azoka. Nekazaritza, abere eta eskularen azoka. Ibarako Piparraren Gastronomia lehiaketa.
Bidegoian: Nekazaritza. Sardinen, sagardoaren eta txakolnaren herri dastatzea. Nekazaritzako produktuak. Eskulangileak bertan lanean.
Urria:
Anoeta: Nekazaritza, Abeltzaintza eta Eskulangintza. Abere, nekazaritza tresna eta herriko baserrietako produktuen zein herriko eskulangileen produktuen erakusketa.
Zizurkil: Azoka berezia. Baserriko produktuen eta eskulangileen produktuen erakusketa eta salmenta
Azaroa:
Berastegi: Nekazaritza. Herriko produktuen erakusketa eta salmenta.

Kontsumo taldeak

Kontsumo taldeak nekazaritza produktu jakin batzuk gertuko baserriar bati zuzenean erosteko osatutako taldeak dira. Baserriarrak astero bere produktuekin osatutako otarra prestatzen dio kontsumitzaile bakoitzari, eta hauetako bakoitzak hilean behin kuota bat ordaintzen dio baserriarari. Otarra osatzen duten produktuen kantidadea ordaintzen den kuotaren arabera izan ohi da eta kuota, taldeko kontsumitzaile guztientzat, hilerdina da.

Aiztondo taldea:

Taldeak Aduna, Alkiza, Asteasu, Villabona, Larraul eta Zizurkileko udalerriek osatzen duten bailararen izena hartu du. Beraien ekoizlea lñaki da eta 20 bat familiak osatzen dute taldea. Kontakturako: aiztondoko@gmail.com

Tolosako Taldea:

Taldea 21 kidek osatzen dute, astelehenero jasotzen dituzte otarrak, Tolosako Zerkausian, 19:00etan. Bilerak, hilean behin egiten dira, gaiak aztertzeko eta ekintzak prestatzeko. kontaktua: tolosako@gmail.com

Tolosaldeko III. Topaketak

Eskolako Agenda 21 proiektuari bultzada handi bat emateko asmoz antolatzen da topaketa hau. Hezkuntza proiektu honetan, 13 herriako 22 ikastetxeren inplikazioa lortu da, eta gaur egun 6.964 ikaslek, 200 baino gehiago irakaslek eta ehunka gurasok parte hartzen dute. Eskola desberdinetako partaideek elkartuta, esperientziak konpartitzen dira; aurtengoa hirugarren edizioa izango da. Tolosako Musika Eskolan egingo da, ekainaren 8an. Bertan, eskolen ordezkariak aurtengo gaiaren inguruan, elikaduraren inguruan, lan egingo dute, udalerrietan ateratako ondorioak, proposamenak eta konpromisoak eztabaidatu eta bateratzeko. Herrien arteko harremanak sendotzea eta elkar ezagutzea izaten dira helburu garrantzitsuenak.



Gogoratzen!! Zer da eskolako agenda 21 lantzea

Eskolako Agenda 21 konpromiso eta ekintza-plan bat da, ikastetxearen eta inguruaren jasangarritasunaren eta kalitatearen alde hezkuntza komunitateak aurrera eramaten duena. Eskolako Agenda 21ek ikasleei beren ingurumen hurbilaren arazoa aztertu eta ulertzea ahalbidetzen die eta herritar gisa bidezkoagoa eta ekologikoki jasangarriagoa izango den gizarte baten alde aritzeko prestatzen ditu, udal kudeaketan partaidetza bultzatuz.

Eta datorren ikasturtean zer?

2011/2012 Ikasturtean BIODIBERTSITATEA izango dugu ardatz nagusi, eta gaiarekin zerikusia duten hainbat alderdi aztertuko ditugu, beti ere, ingurumena oinarri hartuta. **ONDO PASA OPORRAK!!!!**



Tolosaldea 2010/11

ekitategabezia

Aduna - Alegi - Anoeta - Asteasu - Berastegi - Berrobi - Bidegoian - Ibarra - Irura - Lizartza - Villabona - Zizurkil

Elikadura

Gure mahaietan ere islatzen dira herrien kulturak, ohiturak, paisaia eta klima. Azken urteetako bizimodu berriak eta kanpotik ailegatzen zaizkigun ereduak jarraituta, gure elika-tzeko ohiturak aldatzen ari gara, osasuntsua den elikaduratik gero eta gehiago urrunduz. Honen ondorioak pixkanaka agerian gelditzen ari dira: loditasuna, bihotzeko gaixotasunak, diabetesa eta abar; eta ez bakarrik osasunean, ingurumenean ere kalteak eragiten ditu.

Elikadura osasuntsuari berriro heldu behar diogu: bertako produktuak eta garaian garaikoak kontsumitzeak mesede handia egingo digu eta gaixotasun askori aurre egiteaz gain, gure paisaia, gure kultura eta nekazaritza mantentzen ere lagunduko dugu. Amalurrak eskertuko digu!

12 herriako 2.932 ume eta gazte elkarrekin lanean, etorkizun jasangarri eta bidezkoago baten alde.

2010-2011 ikasturtea laugarrena izan da Eskolako Agenda 21 proiektua eskualdean era koordinatuan lantzen dela eta orain arteko esperientzia oso baikorra izan da.

Ongietorri!!! Hiru ikastetxe berri izan ditugu aurtengo proiektuan: Alegiako Aralar institutua, Asteasuko Pello Errota ikastetxea eta Villabonako Erriobeia. Horrela, denera, 15 ikastetxek hartu dute parte proiektuan. Tolosaldeko eta Tolosako 6.964 ikaslek, Tolosako Ingurumen Zentroko lantaldeak koordinatuta, elkarrekin egin dute lan gai bakar baten inguruan. Honela, bailarako ikuspuntua indartu egiten da eta ingurumen arazoan ikuspegi zabalago bat lortzen da.



Aurtengo ikasturtean aukeratutako gaia ELIKADURA izan da eta jorratu diren atalak ingurumenarekin zerikusia duten arazo eta alderdiak, besteak beste: osasuna, biodibertsitatea, nekazaritza ekologikoa, kontsumoa, bertako produktuak, jakien kalitatea eta jatorria, bidezko merkataritza, ekitategabezia...



12 herri, hamabi esperientzia desberdin



Aduna

Eskola: Adunako Herri Eskola.
Ikasle kopurua: 48 ikasle.

Hilabete bakoitzean hainbat ekintza ezberdin egin dituzte. Aipagarrienetakoak hazien tailerra eta apirilean antolatutako "Elikadura astea" izan dira (hitzaldia, Udal Batzarra, hitzaldi-dastatze saioa, janari begetarianoa prestatzen ikasi dute...



Udal Batzarra: Ikasturtean egindakoa azaldu dute, eta proposamenak alkatearekin eta teknikariarekin eztabaidatzeko beta ere izan dute. Oso ondo prestatuta eraman dute!

Alegia

Eskola: Aralar Institutua.

Ikasle kopurua: 149 ikasle.

EA21 programan aurten lehenengo ikasturtea izan dute eta primeran moldatu dira. Lan pila bat egin dute, bai herrian, baita eskolan ere: galdetegiak, dendetan azterketak, transgenikoak zer diren eta non aurkitu daitezkeen ikasi, eta abar.



Udal Batzarra: Ingurumen Batzordekoak joan ziren egindako lanaren emaitzak aurkeztera eta oso proposamen interesgarriak egin zizkieten Udalari. Alkateak gaur egun elikadurak eta kontsumo ohiturek duten garrantzia azpimarratu zuen.



Anoeta

Eskola: Anoetako Ikastola
Ikasle Kopurua: 317 ikasle.

Esperientzia politak izan dituzte aurten: Gregorioren baserria ezagutzera joan ziren

eta gauza pila bat erakutsi zien, Pakita baserritarra ikastolara joan zen bisitan eta galdetegi bat egin zioten; oso gauza interesgarriak kontatu zituen eta baratza erakutsi zioten: oso dotore jarrita omen daukatela esan zien!



Udal Batzarra: Ingurumen Batzordekoek azaldu zuten egindako lana eta proposamenen artean urtaro bakoitzean azoka berezi bat egitea eskatu zuten; horrela, herritarrek garaiko produktuak zeintzuk diren ezagutuko dute. Alkateak gustu handiz entzun zituen proposamenak eta oso interesgarriak iruditu zitzaizkion aurkeztutako lanak.

Asteasu

Eskola: Pello Errota Ikastetxea.

Ikasle Kopurua: 243 ikasle.

Hauek ere aurten EA21 proiektuan beraien lehenengo urtea izan dute eta gogo handiz aritu dira. Proposatutako herri mailako ekintzak egin dituzte eta emaitza interesgarriak lortu dituzte. Guraso elkarte bat sortu dute baratza ekologikoa martxan jartzeko.



Udal Batzarra: Ikasle eta guraso asko joan ziren Udaletxera, ikasle batzuk oso urduri zeuden, lehenengo aldia zela-eta, baina oso ondo egin zuten. Segi horrela!



Berastegi

Eskola: J.A. Muñagorri.

Ikasle kopurua: 123 ikasle.

Hainbat gai aztertu dituzte: hamaiketakoaren neurketa, aste bateko dieta, jangelako arauen betetze maila, herritarren kontsumo ohiturak, produktu ekologikoen salmenta... Ondorio interesgarriak atera dituzte eta, pixkanaka, ikusitako gabeziak hobetzen joan nahi dute.



Udal Batzarra: Alkatea eta Agenda 21eko teknikariaren aurrean ikasle talde bat joan zen aurkezpene egitera eta egindako lanaren azalpenak eman zituzten. Alkateak zoriondu egin zituen egindako lanagatik.



Berrobi

Eskola: San Andres.
Ikasle kopurua: 54 ikasle.

Munduan gosea pairatzen duen jende asko dagoela ikasi dute. Denetarik jan behar dela eta "nazkarik ez" leloari jarraitu nahi diote. Aurten ere martxan jarri dute eskolako baratza eta oso pozik daude proiektu berri honekin.



Udal Batzarra: Baratza egiteko utzitako lur sailarengatik Eskolak eskerrak eman zizkion Udalari eta EA21 proiektuaren garrantzia azpimarratu zuten; lantzen jarraitu nahi zutela adierazi zioten Udalari.



Bidegoian

Eskola: Txinkorta LHI.

Ikasle kopurua: 59 ikasle.

Zerainera bisita egin zuten eta gazta nola egiten zuten ikasi. Herrian ere proposatutako lanketa egin dute eta logotipo lehiaketa

antolatu dute.

Udal Batzarra: Ikastetxeko ikasle guztiak joan ziren, txikiak ere bai, eta proposamenak aurkeztu zizkieten. Beraiek hartutako konpromisoak ere beteko zituztela esan zuten.



Ibarra

Eskola: Uzturpe Ikastola.

Ikasle kopurua: 362 ikasle.

Merienda osasuntsua antolatu zuten, baseritarren bisita izan zuten eta elkarizketa egin zieten, beraien egoera eta erronkak ezagutzeko; transgenikoen arazoaz ere jabetu dira, beste gauza askoren artean.



Udal Batzarra: Ikasle pila bat joan zen Udaletxera eta oso goxo egon ziren denok han. Ibarra azoka berreskuratzearen arazoez aritu ziren hizketan eta ea denon artean berreskuratzen zuten aipatu zuten.



Irura

Eskola: Irurako Ikastola

Ikasle kopurua: 179 ikasle.

Herrian lanketa egin ondoren, hainbat gauzaz ohartu dira: diru gehiago edukitzeak ez duela esan nahi hobetu jaten dutenik, askotan gozo gehiegi jaten dutela eta fruta gehiago jan behar dutela. Elikadura subiranotasunari buruzko erakusketa ikusgai eduki zuten ikastolan.



Udal Batzarra: 30 ikasle inguru joan ziren Udaletxera, eta proposamenen artean Ikastolan baratza egiteko lur sail bat eskatu zioten alkateari. Honek aukera onena zein zen aztertzen ari zirela erantzun zien. Bukaeran, hamaiketako gozo batera gonbidatu zituen alkate andreak, egun berezia zelako! Denak poz-pozik bueltatu ziren Ikastolara.



Lizartza

Eskola: Juan XXIII LHI.

Ikasle kopurua: 76 ikasle

Gauza asko egin dituzte aurten: gure baratzetan sasoi bakoitzean zer dagoen aztertu zuten, D'elikatuz zentrora eta Ordiziako azokara joan ziren, Mugarik gabeko albatariak prestatutako ipuin kontakizuna ikusi zuten eta Silvanoren jokoaren bidez gaia landu zuten, Getariako kontserbera bat ezagutzera joan ziren, germinatu desberdinen aleak ekarri zituzten eskolara, eta ziklo bakoitzak bat zaindu eta ureztatu zuen emaitzak ikusiz, oso polita izan zen!!



Villabona

Eskolak: Jesusen Bihotza Ikastola, Fleming herri eskola eta Erniobe institutua

Ikasle kopurua: 1.117 ikasle

Interesgarrienetakoa: Erniobe Institutuarentzat aurten izan da lehenengo urtea.



Baserriak bisitatu dituzte, Santo Tomas Egunean postu dotoreak eta talo tailerrak egin zituzten, garai bakoitzeko fruta eta barazkiekin muralak egin dituzte eta herriko lanketarako fitxak landu dituzte.

Dena bateratu eta adosteko Ikasle Foroa egin zuten Gazteleku berrian.

Udal Batzarra: 50 bat ikasle joan ziren aurkezpene egitera, batzuentzat egoera berria zen, baina oso ondo egin zuten. Baserriarrei laguntzeko eta bertako produktuak bultzatzeko eskatu zioten Udalari.



Zizurkil

Eskolak: Jesusen Bihotza Ikastola, P.M.

Otaño Herri Eskola, San Millan Eskola.

Ikasle kopurua: 205 ikasle.

Txikiak Tolosara joan ziren "Gabonak eta kontsumoa" ekintzan parte hartzera. Herrian antolatutako azoka berezian postua jarri zuten beraien baratzetako produktuekin; baserriarrei bisitak egin dizkiete. Lan bikaina egin dute.



Udal Batzarra: Hiru ikastetxeetako ikasleak, ikasle foroan adostutako proposamenak eta konpromisoak aurkeztu zituzten. Proposamenak entzun ondoren, alkateak urtero bezala idatziz erantzungo zuela esan zuen eta ikastetxeetara joango zela esan zien.

Ondorioak, proposamenak eta konpromisoak

Orokorrean, Tolosaldeko ikasleek elikadura osasuntsua daukate, nahiz eta batzuetan litxarkeria gehiegi jaten duten. Konturatu dira erosketak gehienak supermerkatu handietan egiten direla, nahiz eta herri txikietan bizi direnak erosketak dezente bertako denda txikietan egiten dituzten.

Bertako eta garaiko produktuak kontsumitzearen garrantzia jabetu dira; gainera, kanpoko produktuak erosten badira, kutsadura handitzen dela konturatu dira.

Baserriak etorkizun zaila duela ondorioztatu dute, bertatik bizitzea oso zaila da eta gazteak mundu honetara erakartzea ere zaila da. Baserriarren etorkizuna bermatzeko, bertako produktuen salmenta bultzatu behar dela argi daukate eta honek gizarte guztiaren inplikazioa eskatzen du; bestalde, erakundeek ere baserriarrei laguntzea behar-beharrezkoa dela deritzote.

Produktu transgenikoak ere aztertu dituzte eta informazio falta nabaria dela diote. Biodibertsitatean eta osasunean ondorio larriak eduki ditzakete eta kontrol falta nabarmena dagoela iruditzen zaie.

Udaletxeetan proposamen ezberdinak aurkeztu dituzte egoera hobetzeko; azokak indartzea eta ez dauden herrietan azoka ezberdinak egitea; baratzak egiteko lur sailak prestatzea; baserriarrei behar ezberdinetan laguntzea; herritarrek sentibilizatzeko kanpainak martxan jartzea; kontsumo taldeak bultzatzea, etab.

Ikasleak beraien esku dauden konpromiso batzuk hartzeko prest agertu dira, adibidez: bertako eta garaiko produktuak kontsumitzea; denetik jatea, batez ere fruta eta barazki gehiago, eta litxarkerien kontsumoa gutxitzea; azoka eta denda txikietan egitea erosketak; eta herritarren artean ikasitakoaren informazioa zabaltzen saiatzea. Hala ere, herri bakoitzean proposamen eta konpromiso zehatzak atera dira.

Lan bikaina egin da eta hemendik aurrera konpromisoak betetzen joatea espero da.